

## LAU LAGUNAK

Bigarren berria.

Eguna: astearta.

Ordua: eguerdiko hamabiak.

*Eguerdi on, jaun-andreok! Espaziotik berri ikaragarria etorri zaigu. Badakizue zein den: asteroidea. Bai, adituek egia dela esaten dute, guztia **baieztatu** dute. Sei egun berri, igandean, asteroidea Lurraren kontra lehertuko da. Mundu osoko gobernuak harrিতa daude, sorpresaz eta beldurrez hartu dute berria. Momentu honetan bilera bat eginen ari dira Suitzan, Geneven, eta bertan munduko herrialde guztietako **agintariak** daude bilduta. Egoera larria da. Mundu mailako alarma dugu. Ikaragarria da, jaun-andreok! Inork erremediatzen ez badu, mundua laster amaituko da. Besterik gabe, gero arte! Hurrengo berriak hiruretan izango dituzue. Ondo izan!*

#

**baieztatu:** zerbait egiazkoa dela esan.

**agintari:** herrialde batean agintea daukan pertsona.

—Hemen amuermatuta gaude —esan du Bonik.

—Zer? —galdetu dio Antontxuk.

—Amuermatuta gaudela.

—Bai, arrazoi duzu, bai.

Antontxuk eta Bonik logela konpartitzen dute, eta oso lagun onak dira. Orain jangelan daude, egoitzako jangelan handi, zabal eta dotore batean. Gosaltzen ari dira. Batean Eukeni eta Mikela agertu dira jangelan, presaka. Emozio-aurpegia dute. Eukenik eta Mikelak ere gela konpartitzen dute, eta oso lagun onak ere badira. Bi gizon eta bi emakume hauek, lau atso-agure hauek, lagun handiak dira. Sekretu, **kezka** eta kontu guztiak kontatzen dizkiote elkarri, konfiantza handia daukatelako. Istorio hau lagun-talde baten istorioa da, lau zahar **ausart** eta **bizi** horien laguntasun- eta maitasun-istorioa.

—Enteratu al zarete? —galdetu die Eukenik, urduri.

Agure biek atso biei begiratu diete.

—Enteratu? Asteroidea etorriko dela eta Lurraren kontra lehertuko dela? Bai, noski. Eta zer? —esan du Bonik.

—Nola eta zer! —esan dio Eukenik—. Arazoa oso larria dela! Pentsatu al duzue zer egin?

—Zer egin ahal dugu, baina? —galdetu du Antontxuk.

—Guk plan bat daukagu —azaldu du Mikelak—. Tira, plana Eukenirena da. Zeuk azaldu, Eukeni.

#

**kezka:** «preocupación».

**ausart:** balientea.

**bizi:** bizkorra, argia, «espabilado».

Eta guztiak jarri dira Eukeniri begira.

Normalean, Eukenik hitz egiten duenean, guztiak adi-adi egoten dira. Oso emakume azkarra da. Txikia da, oso txikia, eta ilea zuri-zuri du. Oso atso ederra da, eta buruan painelua janztea gustatzen zaio. Horrela, painelua buruan, amamatxo tipikoa **dirudi**... baina ez da tipikoa. Gorputza zahartu zaio, baina burua ez. Ez horixe! Eta orain hortxe dago, besteei plana azaltzen. —**Ihes egin** behar dugu hemendik! Orain da gure aukera. Guk beti esaten dugu familia ez dela etortzen gu bisitatzera. Beti esaten dugu abandonatuta gaudela, mundutik aparte bizi garela. Eta plan asko egingo dugula esaten dugu. Egunero esaten dugu ametsak ditugula: zeuk, Boni, askotan esan duzu Euskal Herriko kostaldea **korritu** nahi duzula, mendealdetik ekialdera; zeuk, Antontxu, beti esan didazu zeure ametsa mendi-punta batean egotea dela; Mikelaren ametsa erromeria batean berriro dantza egitea da; eta nire... beno, nik ere neureak ditut...

Bonik serio begiratu dio. Zein izango da Eukeniren ametsa? Eukenik ere oso modu arraroan begiratu dio Boniri. Inoiz ez dio horrela begiratu.

—Eta zer proposatzen duzu? Ihes egitea? Nora? —galdetu dio Antontxuk.

—Ba, leku horietara, gauza horiek egitera!

—Asteroidearena egia bada —esan du Bonik—, hau izango da gure azkenengo aukera, ezta?

#

**dirudi:** «parece».

**ihes egin:** «escapar».

**korritu:** «recorrer».

—Bai —erantzun dio Eukenik. Berriz ere begiratu dio modu arraroan.

—Orain ez badugu egiten, ez dugu inoiz egingo —Mikelaren hitzak izan dira—. Nik uste dut Eukeniren plana oso ona dela.

—Lana? Zein lan? —galdetu du Antontxuk, batzuetan ez duelako **piperrik ere** entzuten.

—Lana ez, plana. Pla-na —esan dio Bonik haserre—. Ea noiz konpontzen duzun audifono hori.

Hor egon dira gero laurak, hizketan: noiz joan ahal diren, nola, zer egin ahal duten... Baina Antontxuk ez du oso garbi ikusten.

—Ados. Imaginatu kanpoan gaudela eta nik mendi batera igo nahi dudala. Gorbeiarra, adibidez, edo Txindokira, edo Hiru Erregeen Mahaia mendiaren **tontorrera**. Nola igoko naiz? Zuek uste duzue kapaz naizela hara joateko? Ez nik eta ez zuek! **Bihotzekoa** hartuko dugu lehenengo hogei metroetan.

—Agian bai —esan dio ironikoki Bonik—. Ez gaude martxa askotarako, baina joan ahal zara Bilbora, hango funikularra hartu eta Artxandara igo.

—Artxanda! —**oihukatu** du haserre Antontxuk—. Hori ez da mendi bat, mesedez! Berrehun eta berrogeita hamar metro ditu, eta bertara **txomintxu** guztiak joaten

#

**piperrik ere ez:** fitsik ere ez, batere ez, «ni jota».

**tontor:** gain, punta.

**bihotzeko:** infartoa.

**oihukatu:** ahotsa asko goratu.

**txomintxu:** «dominguero».

